

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2431

IRAGARKIA, 2024ko maiatzaren 2koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira bi eskaera hauek: batetik, Arabako Vitoria-Gasteiz eta Burgelu udal-mugarteetan «Vitoria Solar 2» eguzki-instalazio fotovoltaiakoaren (49,991 MW) eta haren ebakuazio-azpiegituren proiektua aldatzeko aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera eta, bestetik, Indarberri, S.L. enpresa-sustatzaileak aurkeztu duen eraikitze administrazio-baimenaren eskaera.

48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jartzen dira «Vitoria Solar 2» eguzki-instalazio fotovoltaiakoaren eta haren ebakuazio-azpiegituren eraikuntza-proiektuak, jatorrizko proiektuan egindako aldaketak barne.

Espedientea: 01-GE-Y-2024-00007.

«Vitoria Solar 2» eguzki-instalazio fotovoltaiakoak eta haren ebakuazio-azpiegiturek ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena jaso zuten Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2023ko irailaren 15eko Ebazpenaren bidez (zeinaren bidez formulatzen baita Vitoria-Gasteiz eta Burgeluko -Araba- udal-mugarteetako «Vitoria Solar 2» eguzki-instalazio fotovoltaiakoaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena; sustatzailea Indarberri, SL da. 2023ko urriaren 30eko EHAA, 207. zenbakia). Horrez gain, proiektuek aurretiazko administrazio-baimena jaso zuten Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkariaren 2023ko azaroaren 30eko Ebazpenaren bidez (zeinaren bidez aurretiazko administrazio-baimena ematen zaion Indarberri SL enpresak sustatutako proiektu bati, «Vitoria Solar 2» eguzki-instalazio fotovoltaiakoaren proiektuari, Vitoria-Gasteiz eta Burgeluko udal-mugarteetan -Araba-. 2024ko urtarrilaren 11ko EHAA, 8. zenbakia).

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta aurretiazko administrazio-baimena jaso ostean, honako aldaketa hauek egin ziren proiektuan:

- Eguzki-instalazio fotovoltaiakoa aldatzea, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean baldintza gisa ezarritakoa betetzeko, baina baita Gasteizko Noryeste ureztatzaileen komunitateak eta Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Errepideen Zerbitzuak ezarritako baldintzak betetzeko ere.

- Ebakuazio-linearen trazadura aldatzea (30 kV) «Vitoria Solar 2» instalazio fotovoltaiakoaren sekzionamendu-zentroaren eta SET Promotores Vitoria azpiestazioaren (220 kV) artean, sustatzaile beraren «Vitoria Solar 1» proiektuarekin eta beste sustatzaile batzuen proiektuekin partekatuta.

Eskatzaileak dokumentu hau erantsi zion eskaerari: «Vitoria Solar 1 eta Vitoria Solar 2 eguzki-instalazio fotovoltaiakoen eta Vitoria 220 kV-ko lotuneko ebakuazio-azpiegituren proiektuaren aldaketa ez-funtsezkoari buruzko ingurumen-txostena». Dokumentua ingurumen-organoaren esku utzi zen eta hark erabaki zuen egindako aldaketek ez dituztela betetzen Ingurumen-eba-

luazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 7.2.c) artikuluan ezartzen dituen gutxieneko baldintzak, ezta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 100/2021 Legeak II.E eranskinaren 4. apartatuan ezartzen dituenak ere.

«Vitoria Solar 2» proiektuaren barruan instalazio hauek sartzen dira:

– Eguzki-instalazio fotovoltaikoa, Vitoria-Gasteiz eta Burgeluko udal-mugarteetan dauden 7 eremu hesituz osatua eta 59,23 hektareako azalera duena. Honako hauek osatzen dute:

a) 90.074 panel, 555 Wp-ekoak, 49,99 MWp-eko gehieneko potentziarekin.

b) 14 inbertsore, 3.437 kVA-ekoak, 48,12 MW-eko guztizko potentzia nominala dutenak.

c) 7 transformazio-zentro, 0,6/30 kV-ekoak eta 7,2 MVA-koak.

d) sekzionamendu-zentro 1, 30 kV-ekoa, instalazioaren poligonalean dagoena.

e) Transformazio-zentroak elkarren artean eta sekzionamendu-zentroarekin batzen dira, 30 kV-ko 3 barne-zirkuituren bidez, zuzenean zanga azpian lurperatuta. Vitoria-Gasteiz eta Burgeluko udal-mugar-teei eragiten die.

– 30 kV-ko linea elektrikoa, instalazio fotovoltaikoan dagoen 30 kV-ko sekzionamendu-zentroa eraiki berri den Promotores Vitoria 220/30 kV-ko azpiestazio sustatzailearekin konektatuko duena. Linearen ibilbidea lurpetik doa, Vitoria-Gasteizko udalerrian zehar.

– Xedea: energia elektrikoa sortzea eguzki-teknologia berriztagarri fotovoltaikoaren bidez (b1.1).

– Eskatzailea: Indarberri, SL.

– Eskaeraren helburua: hasieran baimendutako proiektuan egin diren aldaketen aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Vitoria-Gasteiz eta Burgelu.

– Garraio-sarera husteko puntua: «Vitoria» azpiestazioa, 220 kV-ekoa, Red Eléctrica de España, S.A.arena. 2021eko otsailaren 17an eman zitzaion sartzeko baimena.

– Eguzki-instalazio fotovoltaikoaren aurrekontua: 13.674.097,49 euro.

– 30 kV-ko ebakuazio-linearen aurrekontua: 292.069,60 euro.

Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dizkio proiektu honi aldez aurreko eta eraikitzeke administrazio-baimenak.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten, 20 eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 2a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.